Iruña-Pamplona, 2021.02.26

# *Fake* tituluak PAIn

Hezkuntza Departamentuak ingeleseko, frantseseko edo alemaneko B2a duten irakasleentzako aldi baterako ziurtagiriak luzatu eta zabaldu nahi ditu, hizkuntza horietan uztezko C1 maila izan dezaten. *Modus operandi* hori UPNko José Iribas kontseilariak antolatu zuen 2014an, Haur eta Lehen Hezkuntzako espezialitateko langileak kontratatzera behartzen zuen epaiaren ondorioz. Egiaztapena eman zitzaien B2a zuten irakasleei, baldin eta klaseetako % 80ra joan baziren, nahiz eta C1eko azterketak ez gainditu.

Hezkuntza Departamentuak ez die adierazi sindikatuei 2014an aldi baterako akreditazioa eskuratu eta azken 7 urteetan titulazio ofiziala lortu duten langileen ehunekoa, edo zenbat irakasle diharduen aldi baterako C1arekin. Horri gehitu behar zaio gardentasun eza orokorra aipatu programako giza baliabideen kudeaketan.

Titulu ezdeus horiek 2021eko abuztuaren 31n iraungitzekoak ziren, baina Hezkuntza Departamentuak fartsarekin jarraitzeko asmoa du 2025era arte, gutxienez, dekretua aldatuta. C1 pseudomailaren egiaztapenekiko obsesioa ezin da ulertu PAIren gabeziak ezkutatzeko ahaleginean baizik, ingeleseko B2 maila duten irakasleak kontrata baitaitezke programarako. Horrela, hobeki ezkutatzen dituzte hizkuntza-prestakuntza eskasa eta gainerako arazoak pedagogiaren eta antolaketaren alorretan.

---

# Titulos *fake* en el PAI

El Departamento de Educación pretende prorrogar y ampliar las certificaciones transitorias para docentes con un B2 de inglés, francés o alemán al objeto de que dispongan de un nivel ficticio C1 en dichos idiomas. Este *modus operandi* fue pergeñado en 2014 por el consejero José Iribas de UPN, tras la sentencia que le obligaba a la contración de personal con la especialidad pertinente en Infantil y Primaria. La acreditación se concedía al profesorado con el B2 que, aunque hubiera suspendido las pruebas del C1, justificara la asistencia al 80% de las clases.

El Departamento de Educación se ha negado a informar a los sindicatos del porcentaje del personal que, habiendo logrado la acreditación temporal en 2014, ha obtenido la titulación oficial en los últimos 7 años, o de cuánto profesorado realiza su labor con el C1 transitorio. A lo que debe añadirse la opacidad generalizada en la gestión de recursos humanos en dicho programa.

Estos títulos de chichinabo debían haberse extinguido el 31 de agosto de 2021, pero el Departamento de Educación, mediante una modificación del decreto, tiene la intención de proseguir con la farsa hasta 2025, cuando menos. Esta obcecación con las acreditaciones de pseudonivel C1, solo cabe entenderla en el intento de ocultar las deficiencias del PAI, ya que es posible contratar para el programa a docentes con un nivel B2 de inglés. Así disimulan mejor la deficiente formación lingüística y el resto de problemas pedagógicos y organizativos.

www.steilas.eus

Araba 945 14 11 04 araba@steilas.eus
Bizkaia 944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus
Gipuzkoa 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus
Nafarroa 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus